

## UNIBASQen ebaluazio baikorra Enpresagintzan.

2016/02/22

Euskal unibertsitate sistemaren Kalitate agentziak (UNIBASQ), aldeko irizpenarekin ebaluatu ditu hiru titulazioren garapena: (Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Gradua, Finantza eta kontabilitate Zuzendaritzan Unibertsitate Masterra eta Marketin digitalean Unibertsitate Masterra); era berean irizpen bera izan du, Kalitatearen Bermerako Barne Sistemarekin (AUDIT).

UNIBASQ-ek modu honetan, lehen aipatutako hiru titulu ofizialen ezarpena eta garapen arrakastatsua errekonozitzen du eta baita politiken eta Kalitatearen Barne-Bermearen Sistemen existentzia ere (SGIC). Hauek, formalki daude ezarrita eta publikoki eskuragai.

